

159/2025 ALKATEAREN-EBAZPENA, 2025eko URRIAREN 9KOA: KULTURA ETA TURISMO TEKNIKARIAREN POSTUA (A2) BARNE PROMOZIOAREKIN LEHIAKETA-OPOSIZIO BIDEZ BETETZEKO HAUTAKETA PROZESUAREN DEIALDIA eta OINARRI OROKOR eta ESPEZIFIKOAK ONARTZEN DITUENA.

2022ko maiatzaren 12ko 60/2022 Alkatetza-Ebazpenaren bidez, Segurako Udaleko 2022ko Lan Eskaintza Publikoa onartu zen, eta iragarki-taulan, Udalaren web-orri ofizialean eta 2022/05/23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 2022/06/17ko EHAAn argitaratu zen.

Ebazpen horretan, besteak beste, erabaki zen Kultura eta turismo teknikariaren lanpostua barne sustapenaren bidez hornitzea, ezaugarri hauekin:

Izena: Kultura eta turismo teknikaria.

Eskala: Administrazio berezia.

Azpieskala: Teknikaria.

Sailkapen taldea: A2.

Hizkuntza eskakizuna: 3. HE, derrigorrezkoa.

Lanpostu kopurua: 1.

Txanda: Iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko jardunbidea.

Hautatze-sistema: Lehiaketa-oposizioa.

Indarrean dagoen Segurako Udaleko lanpostuen zerrendan, 2025eko martxoaren 13an Segurako Udaleko Osoko bilkuran onartu zena eta 2025/04/24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zena, jasota dago kultura eta turismoko teknikariaren lanpostua aipatutako ezaugarriekin eta bertan zehazten da: "Kultura eta turismo administrariaren plaza betetzen duena Kultura eta turismo teknikariaren plazara barne promozioz pasatzen denean, Kultura eta turismo administrariaren plaza amortizatu egingo da."

Horregatik, Segurako udaleko lanpostuen zerrendan hutsik dagoen eta karrerako funtzionario modura izango litzatekeen kultura eta turismo teknikari plaza lehiaketa-oposaketa bidez eta barne sustapenaren bidez hornitzeko, hautaketa prozesua arautuko duten oinarriak ezarri dira.

Apirilaren 2ko, 7/1985 toki jardunbideko oinarriak arautzen dituen legearen 21.1g) atalak ematen dizkidan eskuduntzak erabiliaz, Segurako Alkatea naizen aldetik honakoa

E B A Z T E N D U T

LEHENENGO: Onartzea Kultura eta turismo teknikariaren lanpostua barne sustapenaren bidez eta lehiaketa-oposizio sistemaren bidez hornitzeko deialdia, eta oinarri orokorrak eta oinarri espezifikoak, Ebazpen honi erantsita daudenak.

BIGARRENA: Argitaratzea Kultura eta turismo teknikariaren lanpostuari dagozkion oinarri orokor eta espezifikoak Gipuzkoako Aldizkari OFIZIALEAN eta laburpen bat Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean. Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeita (20) egun balioduneko epea dago adierazitako lanpostuak betetzeko merezimendu-lehiaketan parte hartzeko eskabideak aurkezteko.

SEGURAKO UDALA

KULTURA ETA TURISMO TEKNIKARIAREN POSTUA (A2 TALDEA) BARNE PROMOZIOAREKIN LEHIAKETA-OPOSIZIO SISTEMAREN BIDEZ BETETZEKO HAUTAKETA PROZESUAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

- I. *2022ko maiatzaren 12ko 60/2022 Alkatetza-Ebazpenaren bidez, Segurako Udaleko 2022ko Lan Eskaintza Publikoa onartu zen, eta iragarki-taulan, Udalaren web-orri ofizialean eta 2022/05/23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.*
- II. *Apirilaren 2ko, 7/1985 toki jardunbideko oinarriak arautzen dituen legearen 21.1g) atalak ematen dizkion eskuduntzak erabiliaz, Alkateak, urriaren 9ko 159/2025 ebazpenaren bidez, Segurako udaleko kultura teknikari baten plaza barne sustapen bidez betetzeko hautaketa-proba arautuko duten oinarri espezifikoak eta deialdia onartu ditu.*

LEHENA. Deialdiaren xedea.

Deialdi honen helburua, Segurako Udaleko lanpostuen zerrendan hutsik dagoen eta karrerako funtzionario modura izango litzatekeen kultura eta turismo teknikari plaza bat lehiaketa-oposaketa bidez eta barne promozioan betetzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarriak ezartzea.

BIGARRENA. Plazaren eta lanpostuaren ezaugarriak.

- Lan-postuaren izena: *Kultura eta turismo teknikaria.*
- Saila: *Kultura eta turismoa.*
- Sailkapen taldea: *A2.*
- Eskala: *Administrazio berezia.*
- Azpieskala: *Zerbitzu bereziak*
- Klasea: *Goi mailako teknikaria*
- Dotazioa: *1*
- Lan postu mailako osagarria: *21.*
- Berariazko osagarria: *22.587,04 €*
- Dedikazioa: *Osoa, %100.*
- Dedikazio berezia: *%8*
- Titulazioa: *Turismoko Gradua edo parekatua.*
- Hautatzeko modua: *Oposizio-lehiaketa.*
- Hizkuntza eskakizuna: *3. derrigorrezkoa.*
- Hautaketa-sistema: *oposizio-lehiaketa.*
- Lanpostuak betetzeko modua: *Barne-sustapena.*

HIRUGARRENA. Eginkizunak.

Funtzioak eta oinarrizko eginkizunak:

Kulturarekin lotutakoak:

- Urte osoko ekitaldien planifikazioa egin eta egutegia osatu.
- Ekitaldi eta jaien antolaketa eta kudeaketa (Euskal Herriko Dantza Txapelketa, Dantza Eguna, Herriko Jaiak...), herriko elkarte, norbanakoekin eta agintariekin koordinatuz.
- Ekitaldien antolakuntzan kudeaketa, koordinazioa eta laguntza, Udala eta elkarten artean (Inauteria, Aste Santua, Lore eta landareen azoka, Iparra Hegoa, San Isidro eta Korpus Eguna, Euskararen Nazioarteko Eguna...).
- Saileko eremuetan garatutako jarduerak eta programak egitea, zabaltzea eta sustatzea (ikastaroak, jaialdiak, lehiaketak, etab.), eta programatutako jarduerak ezagutarazteko kanpainak egitea: komunikabideak, web orria...
- Kultura eta turismo alorreko urte osoko publizitatea lotu. Aurrekontuak eskatu, datak definitu, publizitate mota aukeratu, hitzarmenak landu eta agintariekin adostu.

- Difusio eta hedapen lanak: materialak sortu, bidali, esku orrien eta kartelen zuzenketak, argazkiak, Web orriaren mantenua eta informazioa eguneratuta edukitzea.
- Ikastaroak planifikatu, antolatu, garatu, sustatu eta hedatu.
- Hitzaldiak, lehiaketak eta erakusketak antolatzea, sustatzea eta hedatzea.
- Argazki artxiboa osatzea.
- Kultura ekipamenduak kudeatzea eta mantenua koordinatu: altzairuak, proiektorea, audioa...
- Kultura-ondasunak eta kultura-ondarea jasotzea, zaintzea, zabaltzea eta sustatzea.
- Herriko elkarte, talde eta eragileekin elkarlana eta lankidetzatza sustatzea, dinamizatzea, bideratzea eta gauzatzea.
- Herriko elkarteei dirulaguntzak eskatzen lagundu.
- Dirulaguntza izendunen tramitazioa: elkarte eta eragileei eskaera orriak bidali eta jaso,...
- Euskararen Udal barruko plana landu eta ebaluatu (UEMArekin batera).

Turismoarekin lotutakoak:

- Udal barruko turismo mahaia koordinatu: agintari eta Ardixarra Etxeko langileekin. Bilera deiak egin, akta jaso, proiektuak landu, aurrekontuak eskatu eta dirulaguntzak eskatu.
- Produktu turistikoak sortu, sustatu eta komertzializatu; gida turistikoak sortu eta publikatu, Erdi Aroko Interpretazio Zentroa (proiektu pedagogikoa eta Ardixarra markaren lanketa),
- Herriko gida turistikoak eta ibilbide turistiko-kulturalen sorkuntza, antolakuntza, sustapena eta hedapena.

Kirolarekin lotutakoak:

- Kirol ekipamenduen kudeaketa egokiaz arduratu.
- Herriko elkarte, talde eta eragileekin elkarlana eta lankidetzatza sustatzea, dinamizatzea, bideratzea eta gauzatzea.
- Kirol diru-laguntzen kudeaketa orokorra.

Kulturako administrazioarekin lotutakoak:

- Kultura-Turismoko Batzordetako idazkari-eginkizunak burutzea.
- Saileko aurrekontua proposatu, kudeatu eta jarraipena egin.
- Alorreko diru laguntzak eskatu eta kudeatu.
- Ekintzak aurrera eramateko kontratazioak egin, beharrezkoa dela iritziz gero.
- Bere esparruko informazioa komunikatzea eta hedatzea.
- Ardurapeko espedienteak kudeatu eta izapidetzea.
- Ordenantzak, erregelamenduak eta oinarriak egiten laguntzea (euskara, kultura, kirola, Turismoa ...).
- Zerbitzu, jarduera eta programen gaineko azterketak eta txosten teknikoak egin, eta dagozkien hobekuntzak proposatu.
- Eskumen eta zerbitzuei buruzko lege xedapen, programa, dirulaguntzak eta berrikuntzak aztertzea eta ezagutzea, eta horiek zabaltzea.

Orokorrak:

- Herritarrei arreta ematea.
- Gainerako langileekin elkarlanean aritzea lana pilatzen denean, norbait ez dagoenean edo gaixo dagoenean.
- Lehenago deskribatutako eginkizunez gainera, bere gaitasun eta ahalmen profesionalen arabera, ezarritako helburuak betetzeko egokitzen zaizkion bestelako eginkizunak egitea.

LAUGARRENA. Aplikatu beharreko araudia.

Deialdia honako oinarri hauen eta honako araudi honen arabera arautuko da, hautaketa-prozesuan zehar onar daitezkeen lege-aldaketak alde batera utzi gabe; kasu horretan, aplikagarriak izango dira:

— 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

- 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriei buruzkoa.
- 7/85 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen.
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa.
- 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, toki-administrazioko funtzionarioak hautatzeko prozedurak bete behar dituen oinarrizko arauak eta gutxieneko programak ezartzen dituen.
- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.
- 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko dena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

BOSGARRENA. Izangaiek bete beharreko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Espainiako nazionalitatea izatea, hargatik eragotzi gabe Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 57. artikuluan xedatutakoa.
2. Eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
3. Hamasei urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.
4. Diziplina-espediente bidez edozein administrazio publikotako edo autonomia-erkidegoetako organo konstituzional edo estatutarioetako zerbitzutik bereizita ez egotea, eta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikoetarako desgaitasun absolutu edo berezia ez izatea, ezta funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko desgaitasun absolutua edo berezia ere, edo lan-kontratudun langileen kasuan bete zuten zituzten eginkizunen antzekoak betetzeko

desgaituta ez egotea. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, bere estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragozten duenik.

5. Administrazio publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasun kasuren batean ez egotea.
6. Turismoko Gradua edo parekatua izatea.
7. Segurako Udalean karrerako funtzionario gisa zerbitzu aktiboan edo zerbitzu berezietan egotea beheko azpitaldean (C1).
8. Karrerako funtzionario gisa bi urtez jardun izana C1 azpitaldean.
9. Bete nahi den lanpostuak derrigorrezko 3. hizkuntza eskakizuna dauka esleituta edo C1 maila.

Aipatutako betekizun guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira, eta izendapena egin arte eutsi beharko zaie, oinarri hauetan kontrakoa xedatzen ez bada.

SEIGARRENA. Eskabideak aurkeztea.

Hautaketa-prozesuan onartua izateko eskabideak Segurako Udaleko erregistro orokorrera bidaliko dira, eta honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:
 - a) NANaren edo nortasuna egiaztatzeko agiriaren fotokopia.
 - b) Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzen den tituluaren fotokopia konpultsatua.
 - c) Beheko azpitaldean (C1) karrerako funtzionario gisa egindako zerbitzuen ziurtagiria.
 - d) Eskatzaileek, eskabidearekin batera, alegatutako merezimenduen adierazpena aurkeztu beharko dute, bai eta merezimendu horiek egiaztatzeko behar diren agiriak ere. Izangairen batek merezimenduak alegatzen baditu, baina horiek egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkezten ez badu, egiaztagiria zuzentzeko eskatuko zaio. Ez da baloratuko eskabidean alegatutako merezimenduez bestelakorik.

Eskabideak behar bezala beteta aurkeztuko dira Segurako Udaleko erregistro orokorrean, gehienez ere hogeita (20) egun naturaleko epean, deialdiaren iragarkia *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Instantziak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako administrazio publikoen erregistroetan ere aurkeztu ahal izango dira.

ZAZPIGARRENA. Hautagaiak onartzea eta baztertzea.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, deialdia egin duen organoak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartuko du. Ebazpen hori Segurako Udalaren webgunean argitaratuko da (www.segura.eus) eta udalaren iragarki-taulan jarriko da.

Behin-behineko zerrendan baztertuta agertzen diren izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dute baztertze horren aurka erreklamatzeko. Erreklamaziorik egiten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da automatikoki.

Erreklamazioak aurkezteko epea igarota, deialdia egin duen organoak aurkeztutako erreklamazioak ebatziko ditu, eta onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartuko du. Behin betiko zerrenda Segurako Udalaren webgunean argitaratuko da (www.segura.eus), eta udalaren iragarki taulan jarriko da.

Onarpenen eta baztertzeen behin betiko zerrendak onartzen dituen ebazpenaren aurka, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Segurako Udaleko Alkatezari, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, bi hilabeteko epean, biak behin betiko zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hautaketa-prozesuko probetara onartu gisa agertzen diren izangaiak joan ahal izango dira, bai eta, baztertuta egonik, deialdiko egintzan ebatzteke dauden aurkaratze-bideak aurkeztu direla egiaztatzen dutenak ere. Erreklamazioaren emaitza ezezkoa bada, aipatutako izangaia prozesutik kanpo geratuko da behin betiko.

ZORTZIGARRENA. Balorazio- epaimahaia.

Deitutako hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzailea Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 60. artikuluan –urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua–, ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikuluan eta

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81. artikuluan adierazitakoaren arabera eratuko da. Epaimahaiak lehendakari bat, idazkari bat eta alkate-udalburuak zehazten dituen bokalak izango ditu, baina inoiz ez bost baino gutxiago. IVAPEk izendatutako epaimahaiko kide izango dira prozesu osoan zehar ordezkari bat eta euskara probarako beste bat (egongo balitz).

- Lehendakaria: Bertako edo beste udal bateko Kultura Saileko karrerako funtzionario bat edo haren ordezkoa.
- Idazkaria: Udalbatzako Idazkaria edo berau ordezkatzeko duen pertsona.
- Ahotsdunak:
 - o Bertako edo beste udal bateko karrerako bi funtzionario edo haien ordezkok.
 - o IVAPEk proposatutako teknikari bat edo haren ordezkoa.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Segurako Udalaren webgunean argitaratuko da lehiaketa- oposizioeko epaimahaiaren izendapena, kide titular eta ordezkoei, Alkatetzak izendatu ondoren.

Epaimahaiaren osaera teknikoa izango da nagusiki, eta botoa emateko eskubidea duten kide guztiek deialdiko plazetara sartzeko eskatzen den titulazio edo maila akademiko bera edo handiagoa izan beharko dute, eta horien erdiak, gutxienez, lanposturako eskatzen den jakintza-arloko titulazioa edo espezializazioa izan beharko du.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako inguruabarren bat gertatzen denean, epaimahai kalifikatzaileko kideek ezin izango dute epaimahaiaren parte hartu, alkate-udalburuari jakinarazita. Izangaiek errekusazioa sustatu ahal izango dute, lege horren 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Lehenengo proba egin aurretik eratuko da epaimahaia. Eratzeko egintzan epaimahaiko kide titular edo ordezkari gehienek egon beharko dute, eta bilkura horretan hautaketa-prozesuko jarduerak guztien programazio, garapen eta ebaluazio objektibo eta eraginkorra egiteko neurri egokiak hartuko dira.

Jarduteko prozedura:

a) Epaimahai kalifikatzailearen jarduna, une oro, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen xedatutakora egokituko da. Epaimahaia ezin izango da eratu, ezta jardun ere, kideen gehiengo eta gutxienez hiru (3) bertaratu gabe, titularrak edo ordezkok izan. Zenbaketa horretatik kanpo geratuko da idazkari gisa diharduena.

Epaimahaiko kideen gehiengoaren aldeko botoarekin hartuko dira erabakiak, eta berdinketa gertatuz gero, presidentearen kalitatezko botoak ebatziko du. Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik; idazkariak hitza izango du, baina botorik ez.

b) Nolanahi ere, Epaimahai Kalifikatzaileak arau hauek aplikatzean sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu, eta, era berean, beharrezko neurri guztiak hartuko ditu probak egiteko behar diren egokitzapen guztietarako.

c) Epaimahaiak ezin izango du inola ere hautatutzat jo deialdiko plaza kopurua baino izangai gehiago.

d) Izangaietako batek ere ez baditu gainditzen baztertze indarreko proba guztiak, deialdia hutsik geratuko da.

Epaimahaiburua eta bere ordezkoa ez badaude edo gaixorik badaude, edo kargua hutsik badago, edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, epaimahaiburua ordezkatu duen kideak hartuko du bere gain batzorde burua, eta, hura ez badago, epaimahaikide zaharrenak.

Idazkariaren kargua hutsik badago, idazkaria kanpoan edo gaixorik badago, edo idazkariaren edo bere ordezkoaren kargua hutsik badago, edo legezko beste edozein arrazoi gertatzen bada, Epaimahai Kalifikatzaileko beste edozein kidek ordezkatu du. Epaimahai Kalifikatzailearen gehiengoak hautatuko du kide hori.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabateko autonomia funtzionala izango du, prozeduraren legezotasuna zainduko du eta haren objektibotasuna bermatzeko ardura izango du. Era berean, ordenamendu juridikoarekin bat etorriz, oinarri hauek aplikatzearen inguruan sor daitezkeen zalantza guztiak ebatziko ditu, eta oposizio-lehiaketa hau behar bezala garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuetarako hartu beharreko irizpideak ezarriz.

Hautaketa-prozesuaren edozein unetan, Epaimahai Kalifikatzaileak jakiten badu deialdi honetan eskatutako baldintzaren bat betetzen ez duen izangairen bat dagoela, interesdunari entzun ondoren, hura baztertzea proposatu beharko dio organo eskudunari, eta izangaiak eskabidean egindako zehaztugabetasunen edo faltsutasunen berri eman beharko dio.

BEDERATZIGARRENA. Oposaketa fasea

Oposaketa faseak derrigorrezkoak eta kanporatzaileak izango diren hainbat ariketa izango ditu. Zehazki, ondokoak:

1) Lehenengo proba: Teoriko-praktikoa. Derrigorrezkoa eta kanporatzailea.

Epaimahaiak planteatutako ariketa teorikoak, teoriko-praktikoak eta/edo praktikoak ebatzi beharko dira lanpostuaren zereginekin eta oinarri espezifiko hauen I. eranskinean aurreikusitako gaitegi espezifikoarekin zerikusia dutenak. Beraz, ez da gai zerrenda orokorrari lotuta probarik egingo. Izan ere, 5. klausulako 7 atalean jasota dagoen baldintza betetzea beharrezkoa izanik, barne-sustapeneko lehiaketa honetan parte hartuko duten izangaiak karrerako funtzionarioak direla ziurtatu behar dute eta beraz, gaitegi orokorra barne hartzen duen hautaketa-prozesu bat gainditu dutela. Ondorioz, izangai horiek ez dituzte egin beharko karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorretan aurreikusitako gai-zerrenda orokorrari dagozkion probak. Beraz, probaren edukia deialdiaren xede den lanpostuari dagokion gai-zerrenda espezifikora mugatuko da soil-soilik, izangaiak barne-sustapenean sartzeko behar adina ezagutza badituela egiaztatzeko.

Epaimahaiaren ahalmena da atal honetako ariketa horien ebazpena proposatzea, bai guztiak eginarazita derrigorrez, bai batzuen artean hautatzeko aukera emanda ere.

Proba hori 0 eta 40 puntu bitartean kalifikatuko da, eta gutxienez 20 puntu lortzen ez dituzten izangaiak automatikoki kanporatuko dira.

2) Bigarren proba: Euskara. Derrigorrezkoa eta baztertzaila.

Azterketa hau euskarako 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko izango da.

Azterketa IVAPek proposatutako egunean zehazten dituen bulegoetan egingo da.

Otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuarekin bat etorritik, proba hori egiteko salbuetsita geratuko dira, jarraian aipatzen diren euskara-ziurtagiri edo -tituluetakoren bat dutela egiaztatzen dutenak:

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) ziurtagiria, hizkuntza-eskakizun hori egiaztatu dela egiaztatzen duena.
- Beste ziurtagiri baliokide batzuk, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin edo hura ordeztzen duen araudiarekin bat etorritik.

Proba hori Gai edo Ez Gai kalifikatuko da, eta Gai kalifikazioa eskatuko da proba gainditzeko.

HAMARGARRENA. Lehiaketa fasea

Oposaketa fasea fainditzen duten hautagaiak lehiaketa fasera igaroko dira eta bertan, Epaimahaiak, gehienez 21,5 punturen baitan, eskaeran alegatuak izan behar izan duten ondoko merituak baloratuko ditu:

1) Lan-esperientzia, gehienez 15 puntu, ondorengo baremo honen arabera:

- Administrazio Publikoan kulturako administrari lanpostuan eta/edo turismoko administrari lanpostuan (biak C taldekoak) emandako zerbitzuak baloratuko dira, oinarri espezifikoetan

deskribatutako zereginak edo antzekoak egiten, gehienez 15 puntu, zerbitzu-hilabete oso bakoitzeko 0,25 puntu emanda.

Kasu guztietan, dedikazioa lanaldi osokoa ez bada, puntuazioaren hainbanaketa egingo da. Hilabetea baino epe motzagoetan ere hainbanaketa egingo da.

Beste administrazio publikoetan emandako zerbitzuak egiaztatu egin beharko dira dagokion órgano eskudunak egindako ziurtagirien bidez, adieraziz enplegu harremanaren iraupena, dedikazioaren ehunekoa, betetako lanpostua eta egindako zereginak.

Segurako Udalean emandako zerbitzuak berriz, ez dira agiri bidez egiaztatu beharko, baizik eta hautagaien espediente pertsonaletan dauden datuetan oinarrituta baloratuko dira.

2) Prestakuntza, gehienez 6,5 puntu.

Deitutako plazen zereginekin lotutako prestakuntza osagarria baloratuko da, baldin eta administrazio publikoek homologatua bada eta gehienez 6,5 puntu emanda, ondorengo baremo honen arabera:

- 5 eta 20 ordu arteko ikastaroa: 0,50 puntu, ikastaro bakoitzeko.
- 21 eta 50 ordu arteko ikastaroa: 1 puntu, ikastaro bakoitzeko.
- 51 eta 100 ordu arteko ikastaroa: 1,5 puntu ikastaro bakoitzeko.
- 101 eta 250 ordu arteko ikastaroa: 2,5 puntu ikastaro bakoitzeko.
- Masterra edo 250 ordu baino gehiagoko ikastaroak: 3 puntu.

Prestakuntza osagarria egiaztatu egin beharko da ikastaroa eman duen erakunde ofizialak egindako ziurtagirien bidez, edo lortu den titulua aurkeztuta (edo jasotzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria aurkeztuta).

HAMAIKAGARRENA. Hautaketa prozesuaren kalifikazioa.

Proben azken kalifikazioa zehazteko, lehiaketa- eta oposizio faseetan lortutako puntuazioak batuko dira.

Gaindituen artean berdinketarik gertatuz gero, ordena ezartzeko, lehenik eta behin, oposizio-fasean puntuazio handiena lortu duenaren alde egingo da; bigarrenik, bigarren ariketan puntuazio handiena lortu duenaren alde, eta, gero, lehenengoaren alde; hirugarrenik, Segurako Udalean zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde; laugarrenik, euskal administrazio publikoan zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde; bosgarrenik, beste administrazio publiko batzuetan zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde, eta, azkenik, zaharrenaren alde.

Berdinketak jarraitzen badu, emakumeei emango zaie lehentasuna, administrari kategorian % 40tik beherakoak direnean (4/2005 Legea). Berdinketak jarraitzen badu.

HAMAHIRUGARRENA. Izaera pertsonaleko datuak.

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko ditu Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua,

2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez; eta aplikagarri diren bestelako arauak.

Hautaketa-prozesuetan parte hartzen dutenek automatikoki baimena ematen diote Segurako Udalari euren eskabideetan adierazitako datu pertsonalak erabiltzeko, baita nahitaez egin beharreko argitalpenetan identifikatuak izateko ere. Horri dagokionez, aplikagarria izango da abenduaren 5eko 3/2018 Legea Organikoa dioena, datu pertsonalen babesa eta eskubide digitalen bermei buruzkoa.

Bide beretik, hautaketa prozesuan parte hartzeak hautapen prozesuan zehar hautagaiek emandako dokumentazioa erabiltzea ere suposatzen du.

Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezeztatzeko eta datuen aurka egiteko eskubideak erabil daitezke deialdia egin duen organoaren aurrean, Segurako Udaleko jendearen arretarako bulegoaren bidez.

HAMABOSGARRENA. Inpugnazioak.

Epaimahai kalifikatzaileak emandako egintzen eta ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio egintza eman duenaren goragoko organoari, hilabeteko epean, errekurritutako egintza argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. Artikuluetan xedatutakoaren arabera.

I.ERANSKINA

GAITEGI ESPEZIFIKOA KULTURAKO TEKNIKARIA

1. gaia. Gipuzkoako Foru Administrazioa. Foru eskumen kulturalak eta turistikoak.
2. gaia. Hizkuntza-araubidea Euskadin. 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzekoa.
3. gaia: Seguran euskararen erabilera arautzen duen udal ordenantza.
4. gaia: Segurako datu historikoak.
5. gaia. Segurako ondare arkitektoniko zibila.

6. gaia. Segurako ondare immateriala.
7. Gaia: Segurako monumentu-multzoa. Sailkatutako kultura-ondasun deklaratzeari buruzkoa (6/2019 Legea, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa).
8. Gaia: Segurako monumentu-multzoa. Kontserbazioa, kudeaketa eta babes-araudia.
9. Gaia: Segurako ondare arkitektoniko erlijiosoa.
10. gaia: Ardixarra etxea. Erdi Aroko Interpretazio Zentroa. Funtzioak, kudeaketa eta eskaintza turistiko-kulturala.
11. gaia: Segurako jaiak eta tradizioak.
12. gaia. Herritarren parte-hartzea eta kultura- eta kirol-asoziazionismoa. Dirulaguntzak.
13. gaia. Kultura-ekipamenduen kudeaketa.
14. gaia: Euskadiko turismo-politikak. Eusko Jaurlaritzak turismoaren arloan dituen eskumenak.
15. gaia. Euskadiko turismo-politikak. Basquetour
16. gaia. Turismoa Gipuzkoan.
17. gaia. Done Jakue bidea eta Seguratik igarotzea.
18. gaia. Segurako turismo-sustapena. Tokiko produktuaren garapena.
19. gaia. Seinaleztapen turistikoa eta irisgarritasuna. 68/2000 Dekretua, seinalaztapen turistikoari buruzkoa.
20. gaia. Kultura-ekitaldiak antolatzea.
21. gaia. Kulturako dirulaguntza publikoak. 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzei buruzkoa.
22. gaia. Kontratazio publikoa kulturean eta turismoan. 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
23. gaia. Kultura-zerbitzuen oinarritzko kudeaketa ekonomikoa. Udalaren aurrekontua.
24. gaia. Erakundeen arteko koordinazioa eta kultura-sareak. Lankidetzaren GFArekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta kultura-erakundeekin. Europako programak.
25. gaia. Tokiko kultur agendaren programazioa

26. gaia. Euskal Herriko dantza txapelketa
27. gaia. Erakundeen arteko koordinazioa eta kultura-sareak. Dirulaguntzen kudeaketa.
28. gaia. Kultura-proiektuen lanketa.
29. gaia. Azoka, eta ekitaldi kultural eta turistikoen antolaketa.
30. gaia. Kultura- eta turismo-material pedagogikoaren lanketa.
31. gaia. Tokiko gidak.
32. gaia. Tokiko ibilbide tematikoak.
33. gaia: Segurako irabazi-asmorik gabeko elkarteak.
34. gaia. Kultura-ekitaldien antolaketa.
35. gaia. Tokiko urteko agenda.
36. gaia. Kultura-ekipamenduen kudeaketa.
37. gaia. Herritarren parte-hartze sustapena.
38. gaia: Tokiko kultura-ondarearen kudeaketa.
39. gaia. Tokiko turismo-plangintza.
40. gaia. Tokiko turismo-baliabideak.
41. gaia: Turismo-marketina.
42. gaia: Kultura eta turismo sustapena.
43. gaia. Kultura- eta turismo-proiektuen lanketa eta kudeaketa.
44. gaia. Kulturako eta turismoko dirulaguntza eta laguntza publikoen kudeaketa.
45. gaia. Lankidetzatza turistikoko sareak.
46. gaia. Goierriko museoak eta interpretazio zentroak.
47. gaia. Oinarrizko aurrekontu-kudeaketa kulturaren eta turismoan.
48. gaia: Kultura eta turismoa sustatzeko tresna digitalak.

49. gaia. Segurako webguneak.
50. gaia. Euskadiko turismo-bulegoen sarea.
51. gaia. Segurako Hirigune Historikoaren Plan Berezia.
52. gaia. Segurako Udalaren ordenantza fiskalak kultura, turismoa eta kirol sailetan.
53. gaia. Segurako Udalaren ikastaroak antolatzea.
54. gaia. Segurako Udalaren lehiaketak.
55. gaia. Turismo-produktuak egitea.
56. gaia. Segurako Udalaren dirulaguntzak emateko araubidea arautzen duen ordenantza orokorra.
57. gaia. Segurako tradizioak: Aste Santua.
58. gaia. 17/2019 Dekretua, otsailaren 5ekoa, Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorra arautzen duena, Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legean ezarritakoaren arabera.
59. gaia. Aurrekontu orokorren kapituluak.
60. gaia. Kulturako dirulaguntzen kudeaketa.

Seguran, 2025eko urriaren 9an

ALKATEA

Izp. Izarra Urdalleta Iraola